



adats ilaia.	«...—erantzun zuen, bere adatsa alde batera irauliz baldarki...»	(8)
aieru susmoa.	«Thomasek aieruz begiratzan zion, haiek zeudenekoxe lerroan sartu baitzen.»	(91)
aldaka mehaka, gerri aldea	«Zeozer egiten ez bazuen beharbada mutiko lotsatitzat hartuko zuen neskak. Ibiltzean aldakaz ukitzen zion.»	(20)
aldarte umorea, gogaldia	«Badaezpadan eskuak poltsikoetan sartu zituen halako aldarte batek emanda ere.»	(15)
amantal mantala	«...eta aitak amantala eta txanoa janzten zituen zerbitzatzeko.»	(9)
baldarki trakeski, dorpeki	«...—erantzun zuen bere adatsa alde batera irauliz baldarki ...»	(8)
banaka bakan, eskas	«Eserlekuetan emakume banaka batzuk zeuden.»	(14)
bejondeizula zoriona zuri!	«Primeran dago hori. Bejondeizula! Thomasek gehiegizkoa eritzi zion entusiasmo hari benetakoa izateko.»	(38)
bekain bepurua, begi gaineko ileak	«Mutilak bekainak jaso zituen, aurpegikera azpintsu bat jarritz.»	(11)
bekosko bekoki zimurtua.	«Aitaren bekozko haserrea eta Solveigen gaitzespenezko begirada era komiko batean somatzen zituen,...»	68
biharamun mozkor ondoa, ostea, ajea	«Begiak dris-dris zeuzkan, biharamuna baleuka bezala, eta aitak zeozer susmatu izango zuen irudikor begiratu bait zion.»	(31)
bixki bikia	« Bixkiak ez zizkieten aipatu ere egin; mutikoak ez zuen ezer galdetu, baina bazekien.»	(11)
bozkario pozaldia	«Une batez, bozkario hark gainerako guztiaz ahaztu erazi zuen.»	(91)
burko burukoa.	«Adarra jo nahi zion eta burkoaren azpian sartu zuen burua, neskatoaren txilioak ez entzuteko.»	(31)
di-da pentsatu gabe	«—Ez, ezta batere — di-da esan zuen mutilak.»	(34)
dohakabe zorigaiztoko	«Jendez inguraturik zeuden. Jende arrunta, mozkorrak, dohaka-beak , baina mutilak ez zituen gaitzesten.»	(21)
egitate egintza	«...persona batzuk burua itzuli zutela barreka, eta mutila, seko ahazturik munduaren larriaz, eguneroko suediar egitera etorri zen.»	(26)
elkor lehor, siku	«—Bai, jakina, horiek. Ez dute nire behar handirik —esan zion elkor , hitza kenduz—.»	(69)
emeki bigunki, leunki	«Ez dakit —neskak emeki —. Gauza asko. Ez duzu zertan beldur-turik, ohitua nago.»	(7)
eragozpen oztopoa, traba	«Ez aitarekin ez zegoen inolako eragozpenik . Hainbat hobe.»	(13)
eranskin gehigarria	«...—azken hau argibideren bat emateko gehitu ohi den eranskina bezalaxe bota zuen.»	(9)
erauntsi enbata, ukaldia	«—Ez, ez nekien ba —erantzun zion, eta bere gorputz guztia zorion erauntsi baten pean sentitu zuen.»	(83)
erdeinagarri mesprezagarria	«Zikin eta erdeinagarri sentitzen zen.»	(88)
erronka jo desafio egin, axut egin	«Plazan paseiatu adindunei erronka joz beren gaztetasan eta txima luzeekin.»	(78)



erruki gupida, urrikia	«Ez zekien zer erantzun horri. Baina orain aitak errukia ematen zion eta amak gauzak gehitu izango zituela pentsatu zuen.»	(37)
estai solairua, pisua	«Oskarren gela goragoko estaian zegoen. Atean zehar iritsi zitzaion usain gozoago eta sarkorrago bat...»	(80)
etsiturik lur jota	«Negar batean zegoen etsiturik , behin eta berririo esanez.»	(10)
ezagule jakitun	«Aitak ezagule , ulerkor eta psikologotzat zeukan bere burua, eta harro zegoen semeaz fidatzen zelako.»	(13)
eztiki samurkiro, gozo-gozo	«—Non bizi da ama? —galdetu zuen neskak eztiki , mutila iratzar-tzeko beldurrez bezala.»	(11)
gogaitu aspertu	«...larunbatero bezala, nonbaiteko festak ziren, baina Thomas gogaitua zegoen denaz eta denez.»	(13)
goibel betiluna, tristea	«Amak irribarre goibel bat egin zuen.»	(106)
hasperen arnasestu, zizpurua	«—Zuretzat bai —egin zuen neskak hasperen batean—.»	(12)
higuin nazka	«Ikusiko bazenu gure "profea"... Higuina ematen du ahoa zabaldu orduko.»	(38)
hitzjario hitzetorria, erretolika	«Haren hitzjarioa , baina ez zion esan bera aitarekin geratuko zenik.»	(10)
ihi lur hezeetako landarea	«Baina hura liraina zen, errekatxoa bezala, lila eta laranja koloreko ihia bezala.»	(19)
iratzeki biztu	«Ez zen ideia aldrebesa hegazkin batzurekin Lurra gasolinaz zipriz-tindu, eta gero zuzi iratzeki batzuk botatzea.»	(77)
iratzartu esnatu	«—Non bizi da ama? —galdetu zuen neskak iratzar-tzeko beldurrez bezala.»	(11)
irauli itzuli, bueltatu	«...—esan zuen bere adatsa alde batera irauliz baldarki...»	(8)
iseka burla, trufa	«Harrigarria dela zeinen ezberdinak diren pertsonen gustuak —esan zuen Oskarrek, iseka doinu bat gaizki ezkutatuz.»	(79)
iskanbila liskarra, istilua	«Izan ere hauek lau urte besterik ez bait zituzten, eta sekulako iskanbila jartzen zuten etxean...»	(9)
jasan pairatu	«Ordu batak laurden gutxirako geratu ziren eta artean ez ziren haiz maikak ere. Baina ezin zuen jasan .»	(89)
jasangaitz pairaezina, eramanezina	«Mutilari jasangaitz egiten zitzaion hura hain bakarrik eta lur jota ikustea.»	(8)
jazarkeria erasoa, oldarkeria	«Eta bere burua, erakunde sozialdemokrataren batean sartu nahian. Manifestaldi hartan joatea ia jazarkeria bat izan zen.»	(25)
kamaina ohantzea, ohaska	«Horma biluziak. Kamaina bat. Leiho txiki bat burdin hesiekin.»	(95)
lagunkoi adiskidetsua	«Dantzan ezberdina zen. Hurbilagoa zen, lagunkoiagoa ; mintza zitekeen berarekin hitzik ere esan gabe.»	(19)
langa trabesa, haga	«Lorategiko langara heldu eta ireki egin zuen. Sakon arnasartu zuen belar usain sendo hura.»	(28)
lardaxkatu nahaspilatu	«...beren pistolekin tiroka, eroriz, burrukan eta txilioka eta, okerrago zena, bazter guztiak lardaxkatuz .»	(6)
likits zikina, lohia	«Nahas-mahas likits bat, esnatzean zentzapen higuingarri bat utzi ziona.»	(88)



lokamuts amesgaiztoa	« Lokamuts batean bezala atera zuen burua burkoaren azpitik.»	(31)
lurrin usaina, kolonia	«Ama etxeratu eta aita bidaian irten zenean,ama eseri zitzaion ohe ertzean, frantziar lurrina zerion...»	(10)
makur hutsegitea, okerra	« Makur ikaragarriren bat gertatu zitzaion susmoak bultzatu zuen esku dardaratiz begiratzera...»	(89)
miaztu miazkatu, mihiaz busti	«Etengabeki miazten zituen ezpainak mihiaz, eta mutila makur erazten zuen musuka zezan.»	(27)
nare lasaia, patxadatsua	«Ahotsean bakarrik nabaritzen zitzaion. Aldi berean ozpindurik eta nare egoten zen.»	(72)
narraxki arloteki	«Aurrean neska bat zihoan. Adats horaila zeukan, narraxki bilduta zaldi-isats baten eran.»	(14)
oinutsik ortozik, zapata gabe	«Taldeka zeuden, baina beren janzkeragatik erraz nabaritzen zen protestan zeudela. Batzuk oinutsik zeuden.»	(90)
oldakeria bortizkeria	«"Zer dakizu zuk Vietnamen gainean? Zer dakizu zuk USAren ol- darkeriaz ?", esan zuen aitak.»	(25)
orbaingabe garbi-garbia	«Solveig zorrotza zen horretan! Haren inguruan denak egon behar zuen orbaingabe .»	(29)
ostera ibilaldia, txangoa	«...eta honela esaten zion amari: "Neronek eta nire semeek geure eskerrona zor dizugu ostera honegatik".»	(14)
puritanismo gehiegizko moralismoa	«Zure puritanismoa nekaezina da. Gezurra dirudi nire semea hain moralista izateak. Ni hain ezmorala naizelarik.»	(40)
samin garraztasuna	«...eta neskak ez zuen igarri zer zegoen doinu hartan, samina , gorrotoa ala tristura.»	(8)
sarri ugari	«Bizar sarria zeukan, eta aurpegiko zimurrek adierazten zuten esperientzia dexente ezagutua izan behar zuela.»	(81)
sorbaldia bizkarra	«Bere adats beltzak, sorbaldan behera zeriola, bizirik gabeko oihala zirudien.»	(8)
sotil zintzoa, jatorra	«Gorri-gorri jarri eta katilu hutsa eraman zuen ezpainetara. Ama, halere, beste galderarik ez egiteko bezain sotila izan zen.»	(39)
ttu listua, txua	«...telebistako polizia filmetan egiten ikusia zeukan bezala. Ttu eta ostikoka hasi zen.»	(93)
tupust egin elkar jo, kontra jo	«Koto kalerantz abiatu ziren, eta han berriz, tupust egin ez zute- nean balantzaka zebiltzan bi mozkorrekin...»	(12)
tuta tutua, hodia	«Thomasek hortzorea bailitzen zentzapena sentitu zuen, halaxe irte- ten bait da tuta estutzean.»	(21)
txabusina etxerako arropa luzea	«Amak muzin egin zuen, eta zigarro baten bila hasi zen txabusi- naren poltsikoan.»	(36)
txilioka oihuka, garrasika	«...milaka ume batetik bestera korrika, beren jolas-pistolekin tiroka, eroriz, burrukan eta txilioka ...»	(9)
txima sapa, ile nahasia	«Oraingo txima horiexek kopetan behera, baina aurpegia biribi- lagona zeneukan.»	(8)
uhaza letxuga	«Hasteko txanpinoi entsalada uhazarekin jan zuten. Gainean tournedo bana, eta amaitzeko, izozkia txokolate urtuarekin.»	(37)
umegorri umemokoa, mukizua	«—Hi, umegorri —esan zuen Berrari begira—, ez duk ba beste zeozer probatu nahiko?»	(81)
ustiatu esplotatu, zibizkatu	«Hainbat familia aita ekonomikoki ustiatuz , ama historikoz eta ume bihurritz osatuak,...»	(89)



xalotasun xumetasuna, apaltasuna	«Harrokeriarik gabe esan zuen, munduko xalotasun guztiaz.»	(20)
zama pisua, nekea	«...Thomasek misterio itogarri baten zama guztia sentitu zuen bere gainean.»	(10)
zantarki nazkagarriki	«Bi tipo ikusi zituen hari begira eta batek txistu jo zuen halakoetan ohi den eran, eta bestea barrez hasi zen zantarki .»	(33)
zapuztu lur jo, etsi	« Zapuzturik pasa zuen ostiral guztia. Burua lehertzeko zorian zeukan eta aho hatsa...»	(77)
zetzapen sentimendua	«Aurkikuntza honek halako zetzapen bat sortu zion, kezka, plazer eta larridurazkoa.»	(12)
zergati arrazoia, zioa	«Esan zuen era zuzen eta erabakiorrak ez zion utzi Thomasi zergatia galdetzeko aukerarik ere.»	(10)
zeritzon iruditzen zitzaion	«Hasiera batean ez zeritzon guzti hura benetan zenik.»	(10)
zingira urtegia	«Zentralen ume andana bat zegoen zingiraren ertzean etzanda, arrainei begira.»	(33)
zirrara zartada, hunkipena	«...gutxiren faltan egon zen negarrez hasteko guzti honek egiten zion zirrara harrigarriagatik.»	(12)
zirrikitu bitartea, zirristua	« Zirrikitutik ikusi zuen Anna, Anders besoetan zuela, berarentzat astunegia bazen ere.»	(94)
zurbildu kolorea galdu, kolorgetu	«Ez zuen trasterik botatzen, amak bezala, baina ahots ozpindua irte- ten zitzaion eta aita zurbildu egiten zen.»	(35)